

ABENDUALDIKO III. IGANDEA (B)

Otoitza

Jainko Jauna, ikusten duzu zeure herria,
zeure Semearen jaioteguna zintzoki itxaroten;
iguzu, arren,
Eguberritako salbamen miragarriaren zorionera irits gaitezela
eta pozik haundienaz ospa dezagula.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 61, 1-2a. 10-11

Pozez beterik nauka Jaunak.

Isaias Profetaren liburutik

Jaunaren Espiritua niregan dago,
Jaunak gantzutu bainau.
Behartsuei berri ona ematera bidali nau,
bihotz-urratuak sendatzera;
gatibuei barkamena hotsegitera
eta giltzapetuei askatasuna;
Jaunaren grazi urtea hotsegitera.
Pozez beterik nauka Jaunak,
nire arima Jainkoarekin alai daukat;
osasun soinekoz jantzi nau,
garaipen estalkiz apaindu;
koroa jazten duen senargaia bezala,
edergailuz apaintzen den andregai bezala.
Lurrak landareak ematen dituen bezala,
eta baratzak hazia ernetzen duen bezala,
hala erneraziko du Jaunak zuzenbidea
eta gorespena, atzerri guztien aurrean.

ERANTZUN SALMOA: Lk 1, 46-48a. 48b-50. 53-54

R/. **Nire arima Jainkoarekin alai daukat.**

Haundiesten du nire arimak Jauna,
pozaren pozez daukat nire barruna;
Jainkoa baita nire salbamena,
ikusi baitu mirabe honen ezereztasuna. R/.

Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek,
haundiak egin baitizkit Ahalguztidunak:
Santua da Haren izena,
eta Haren errukia gizaldiz gizaldi,
beldur diotenengana. R/.

Ondasunez bete ditu gose zeudenak,
eta esku-hutsik bidali asko zutenak.
Bere gain hartu du Israel, bere morroia,
errukia gogora zaiola. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ts 5, 16-24

*Zareten guztiak –gorputz eta arima–,
errugabe iraun dezala Jaunaren etorrera arte.*

San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei

Senideok: Zaudete beti pozik. Egin otoitz aspertu gabe; eman eskerrak beti; hau da zuentzako Jaungoikoaren nahia Kristo Jesusengan. Ez itzali Espiritua. Ez gutxietsi profeta dohainik. Aztertu guztia; hartu on dena. Zaindu zeuen buruak nolana hiko gaiztakeriatik.

Bakearen Jaungoikoak berak oso-osorik santu egin zaitzatela, eta zareten guztiak –gorputz eta arima– errugabe iraun dezala, Jesu Kristo gure Jaunaren, etorrera arte. Leiala da dei egin dizuena, eta beteko du emandako hitza.

EBANJELIOA: Jn 1, 6-8. 19-28

Alleluia: Ik. Lk 4, 18

R/. Alleluia.

V/. Jaunaren Espiritua niregan dago,
behartsuei berri ona ematera bidali nau. R/.

*Zuen artean bada norbait,
zuek ezagutzen ez duzuen.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik

Agertu zen gizon bat, Jaungoikoak bidalia: Joan zuen izena. Aitormenerako etorria zen: argiaren aitormen egitera, haren bidez guztiek sinets zezaten. Bera ez zen argia, argiaren aitormen egin behar zuena baizik.

Hau da Joaneke egin zuen aitormena, judutarrek Jerusalendik apaizak eta eliz gizonak, «Nor zara zu?» galdetzerantz bidali zizkiotenean.

Joaneke garbi aitortu zuen: «Ni ez naiz Mesias». Haietako orduan: «Zer bada? Elias al zara?» Eta hark: «Ez naiz». «Profeta al zara?» Eta hark: «Ez». Haietako esan zioten: «Zein zara, orduan, bidali gaituztenei erantzuna eman diezaiegun? Zer diozu zeure buruaz?»

Hark orduan:

«Ni, basamortuan oihuka ari denaren mintzoa naiz:

"Zuzendu Jaunaren bidea",

Isaias profetak esan zuen bezala».

Bidalitako haietan batzuk farisearrak ziren; eta honela galdetu zioten: «Zergatik bataiatzen duzu, bada, ez bazara, ez Mesias, ez Elias, ez Profeta?»

Joaneke, orduan: «Nik urez bataiatzen dut. Zuen artean bada norbait, zuek ezagutzen ez duzuen; nire ondoren dator, ni baino lehenagotik da, eta ni ez naiz inor Honen oinetakoen lokarriak askatzeko ere».

Guzti hori Betanian gertatu zen, Jordan ibaiatz besterik aldean; han ari baitzen Joan bataiatzen.

Oparigaien gainekoa

Atsegin bekizkizu, Jauna, gure eskaintzak,
eta bete ezazu guregan, sakramentu honen bidez,
zeure salbamen egintza.

Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdikoa.

Jaunartze ondorengoa

Jauna, zure errukiari deika gaude:
hartu dugun sakramentu honek
senda gaitzala gure ohitura txarretatik,
eta datozkigun jaietarako presta gaitzala.

Jesu Kristo.